

TRINKETA. Rene Muskarditzek buruz buruko lehen txapela lortu nahi du, «maisua» gaindituz



BOB EDME

Rene Muskarditz eta Manu Martiarena, iaz Baionan jokaturako finalean.

Zazpigarrenaren bila

Manu Martiarenak buruz buruko hamaikagarren finala du gaurkoa

H. Gorostiaga | **BAIONA**

Oren batzuk besterik ez dira eskas gaur arratsaldeko zazpi orenetan buruz buruko finala abiatu dadin. Baionako Moderne trinketean ikusmira handia egonen da. Manu Martiarena, azken hamarkada luzeko buruz buruko espezialistarik handiena, alde batetik, eta Rene Muskarditz, Ipar Euskal Herriko pilotak duen momentuko pilotaririk osoena, bestetik. Milafrangarraren joko pausatua eta ze-

hatza batetik, armendariztarren joko bizi eta indartsua bestetik. 37 urteko «maisua», zazpigarren buruz buruko txapelaren bila hamaikagarren finalean, eta lehen buruz buruko txapelaren bila jokatu duen bigarren finalean, bestea. Martiarena gibeletako jokalaria, Muskarditz aitzinekoa. Lapurtarra eta baxenabartarra.

Ezin dira kontrajarriagoak izan bi pilotariak, baina biek aukera bertsuak ukanen dituzte txapelaren eskuratzeko. Iaz

puntu batera gelditu zen gibeletik Muskarditz, aurreko puntu batera utzi nahi luke Martiarena gibelean.

Biak presiorik gabe

Finala polita espero da, Martiarenak ez baitu deus gehiago frogatzerik. Beñat Intxauspere garai handiak, Jean Philippe Bideondorenak edo Jean Claude Biscoubyrenak ezagutu eta sentitu dituenak ez du zertan urduri egotarik. Baina Muskarditzek ere, oraingoa ez bada, hurren-

AZKEN FINALAK

URTEA	FINALA
2000	Martiarena 40; Muskarditz 39.
1999	Aranburu 50; Martiarena 42.
1998	Biscouby 50; P. Karrikart 39.
1997	Biscouby 50; Aranburu 32.
1996	Biscouby 50; Bideondo 45.
1995	Martiarena 50; Biscouby 21.
1994	Bideondo 50; Martiarena 48.
1993	Bideondo 50; Martiarena 26.
1992	Martiarena 50; Bideondo 46.
1991	Bideondo 50; Martiarena 37.
1990	Martiarena 50; Intxauspe 44.

goan aukera ukan dezakeela uste du, eta horregatik ere lasai ariko da. «Presiorik gabe», zioten bi jokalariek, baina Moderne goraino betetzen bada, presioa ere beteko da. «Eta historiak irabazleak izaten ditugogoa, ez galtzaileak», aitortu digu lapurtarrak.

Muskarditzendako beroa zen kezka nagusia, finalerdietan kolpe izugarria eman baitzion, kasik ahuldurik gelditzearaino. Baina ez dirudi aitzineko asteburuan bezainbesteko beroa egiten duenik, eta horrela lasaiago jokatzen ahal du.

Moderne trinketa Muskarditzentzat hobeia izan ohi dela erraten da, berak urte luzez Modernen lan egin baitu eta trinketea frankotan entrentatzeko parada ukan baitu. Gainera, beirazko paretak ezarri zituztenetik binakako hiru final irabazitakoa da bertan txapelketaren barnean, eta beste bat ere udan jokatzen den Masterraren garaian.

Aitzitik joan den urtean Martiarenak irabazi zuen, askoren iragarpenen kontra. Erreban-tza helduko ote?



JOXE LACALLE

Abel Barriola.

ESKU-HUSKA

Abel Barriola lehia itzuliko da, Leitzan

Iñaki Esainen kontra, Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketako bere lehen partidua jokatu du gaur Abel Barriolak (17:30, T 5), bere herrian bertan: Leitzan. Maiaztaren 19tik, Ruben Belokiren kontra aritu zenetik, ongi merezitako atsedena hartu du aurtengo Manomanistako ezusteko nagusiak.

ERREMONTEA

Ezkurra-Urreta II.a maisuak, Galarretan

Binakako Masterra irabazi berritan, Hernaniko Galarretan ariko dira gaur Ezkurra eta Urretabizkaia II.a. Kontrarioak ez dira badaezpada-koak: Patxi Zeberio eta Iñaki Lizaso txapelduna.

JAIALDIAK

GAURKO PARTIDUAK

BAIONA. 17:30.

Etcheberri-Kurutxari / Aranbel-Ezkurra II.a. Berezkoen Buruzko Buruko finala. Martiarena / Muskarditz.

LEITZA. 17:30 (TELE 5).

Nafarroako lau t'erdiko txapelketa. Barriola / Esain. Agirre-Pascual / Azpiroz-Zearra..

BERGARA. 16:30.

Urionaguena-Balardi / Beloki II.a-Nalda. Unanue-Armendariz / Olaizola I.a-Erasti. Salaberria-Galarza IV.a / Ariznabarreta-Albizuri.

URANTZIA. 16:45.

Esna-Salaverri / Capellan II.a-Gorriti.

NEPAS (Soria). 18:00.

Atxa-Jaio / Martinez-Iñurrategi.

ARTAXONA. 17:30.

Etzaniz-Txikito IX.a / Ortiz-Urberuaga.

GALARRETA. 16:00.

Zalakain-Etxeberria II.a / Zeberio-Zestau. Ezkurra-Urreta II.a / Zeberio II.a-Lizaso. Matxin-Txikuri / Urreta I.a-Auzmendi. Iribarren-Zubeldia / Lezea-Ekiza.

EUSKAL. 16:00.

Ziganda-Gaztelu / Iturralde-Astibia. Altuna I.a-Aizpuru / Elizalde-Iriarte. Bitoria-Etxabe / Iñigo-A. Lekunberri. Sarasua-Zandio / Zeberio I.a-Mendizabal.

DEPORTIVO. 17:00.

Zeberio-Agirre / Zarraga-Ibarra. Urkia-Rekalde / Insausti-Garma. Unda I.a-Garrido / Iriondo-Beldarrain.

SELEKZIOA. Egun osoko festa izango dute gaur Gasteizen: Ikaspilota eguna eta Euskadi-Amerika lehia

Etxekoen aurrean ariko da lehen aldiz Euskadiko selekzioa, Amerikakoaren kontra

E. Telleria | **DONOSTIA**

Iazko irailetik, Bilbon aurkeztu zutenetik, ez da inoiz etxean aritu Euskadiko pilota selekzioa. Argentinan zehar ibili zen lehenengo urrian —nazioartean bere berri emateko—, eta Simon Bolivar Kopa irabazi zuen azkena azaroan —lehen lehiaketa ofiziala zen—. Gaur jokatu du aurreneko aldiz euskal pilotazaleen aurrean. Zortzi modalitateetan jokatu da txapelketa, Amerikako pilotari entzutetsuenen kontra (Mexiko, Uruguai eta Venezuelakoak, besteak beste). Egun osoko festa izango dute Gasteizen. Izan ere, Euskadi-Amerika horrez gain, Ikaspilota Eguna ere gaur ospatuko da, eta Arabako, Bizkaiko eta

Gipuzkoako hirurehun haur bilduko dira Mendizorrotzan.

12:00etan egingo da txapelketaren aurkezpena, Gasteizko Ogeta pilotalekuan, eta aurkezpenaren ostean jokatu da,

EGITARAUA

10:00: Eskuz Banaka trinketea:

Sanchez (Eus) / Olivos (Mex). Paleta gomaz neskak: Etxegia-Montes (Eus) / Mantxobas (Ven)-Judith (Mex).

12:00: Ogeta pilotalekuan txapelketaren aurkezpena, bi selekzioetako kide guztiekin.

12:30: Eskuz Banaka ezker paretan: Eguskiza (Eus) / Medina (Mex).

Paleta larruz: Gaubeka-Otero II.a (Eus) / Balizan-Medina (Uru).

16:00: Zesta-punta:

Foronda-Otxoa (Eus) / Bi mexikar.

Xare erakustaldia:

Iturbe-Olano (Eus) / Artola-Molina (Eus).

Eskuz binaka trinketea:

Martin I.a-Antxia II.a (Eus) / Beltran-Santamaria (Mex).

Pala motzeko erakustaldia:

Lacalle-Aierbe (Eus) / Ropero-Egia (Eus).

Paleta larruz: Mena-Sergio (Eus) / Saez (Tx)-Tabares (Uru).

Eskuz binaka: Castellanos-Solozabal (Eus) / Arozena-Pagnone (Ven).

21:00: Sari banaketa eta afaria.

var Kopan ere jokatu zuen Euskadiko selekzioaren kontra. Partidu hori da jende gehien erakarriko duena, baina aipamenez ere, du eskuz binaka trinketea jokatu den ere. Beltran-Santamaria mexikarrak ariko dira Amerikako selekzioarekin, egungo Munduko txapeldunak.

Mikel Bringas: «Selekzioak gero eta maila hobea du»

Euskadiko Selektioko zuzendari teknikoa da Mikel Bringas. Gaurko txapelketa jokatzeko federazioak egin duen «ahalegin berezia» nabarmendu zuen atzo. Zortzi modalitateetan irabazi behar da txapelketan gailentzeko eta itxaropen handiak dituztela dio: «Selekzioak gero eta maila hobea du. Lan handia ari gara egiten, giroa ezin hobea da. Hau da izan dugun konpromiso gogorrena».